



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko irailaren 25a

17. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Legea, zeinaren bidez kreditu-gehigarri bat ematen baita Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren kreditu-beharrizanak estaltzeko. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, Iruñean Auzialdiko 10. Familia Epaitegi berria gaitzeko kreditu-gehigarria ematekoa. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat igor dezan, zeinaren bidez kreditu berezi bat ematen baita 19/2018 Foru Legeak aurreikusten dituen inbertsio finantzarioki jasagarriak egiteko. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Europar Batasuneko Justizia Auzitegira jo dezan HMEIaren erreferentzia duten hipotekak direla-eta ematen duen epaia eskuratzeko eta neurri egokiak har ditzan ukituei aholkua emate aldera. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege bat taxutu dezan desgaitasuna duten pertsonen babesa eta beharrezkoak dituzten laguntzen sistema bermatzeko. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da errege-erreginak eta Vianako eta Asturiasko printzesa gonbida ditzan antolatzen dituen protokolozko ekitaldietara eta, bereziki, Vianako Printzea saria emateko ekitaldira. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala geldi dezan Nafarroako Gobernuko departamentuetarako eta haren erakunde publikoetarako hizkuntza planen onespena, azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren 6. artikulua aplikazioaren araberakoa. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Hizkuntzen Europako Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Emakumeen eta Neskatuen Sexu-esplotazioaren eta Trafikoaren Aurkako Nazioarteko Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten baitu Klima Larrialdiaren Adierazpena. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Gelazain nagusiaren burutza, merezimenduen lehiaketa bidez, betetzeko deialdia. Izendapen-proposamena (11. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Legea, zeinaren bidez kreditu-gehigarri bat ematen baita Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren kreditu-beharrizanak estaltzeko.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko irailaren 19an egindako Osoko Bilkuran, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren kreditu-beharrizanak estaltzeko kreditu-gehigarri bat ematen duen Foru Legea onetsi zuen

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2019ko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Legea,  
zeinaren bidez kreditu-gehigarri bat  
ematen baita Nafar Lansare-Nafarroako  
Enplegu Zerbitzuaren kreditu-  
beharrizanak estaltzeko**

**HITZAURREA**

Estatuak egina du jada Enplegu eta Lan Aferen Sektoreko Konferentziak emandako funtsen hasierako banaketa, hiru bloketan antolatzen dena: Enplegua, Prestakuntza eta Modernizazioa. Prestakuntzaren blokeak 12.084.797 euroko diru-sarrerak jasoko ditu.

2019ko gastuen aurrekontuaren barruan sartuta daude, besteak beste, partida hauek:

- 950002-96200-2276-242102 partida, "Prestakuntza programetarako asistentzia. Sektoreko konferentzia" izenekoa.

- 950002-96200-4809-242100 partida, "Prestakuntza ekintzetarako bekak. Sektoreko konferentzia" izenekoa.

- 950002-96200-2279-242104 partida, "Cenifer programetarako asistentziak. Sektoreko konferentzia" izenekoa.

- 950002-96200-2276-242103 partida, "Prestakuntzarako ekintza osagarriak. Sektoreko konferentzia" izenekoa.

- 950002-96200-4819-242200 partida, "Lantegi-eskolen programak eta programa espezifikoa. Sektoreko konferentzia" izenekoa.

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kreditua handitzeko beharra du ikastetxe berekien (Iturrondo eta CENIFER) prestakuntza ekintzetarako, parte-hartzaileei prestakuntza ekintzak finantzatzeko beketarako eta ekintza osagarrietarako.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua, bere lehen paragrafoan, ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta dagoen kreditua ezin bada handitu aipatutako foru legean jasotako xedapenen arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, kreditu-gehigarri bat emateko. Era berean, bigarren paragrafoan xedatzen du kreditu-gehigarria edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuekin finantzatzen ahal dela, Parlamentuak zuzenketak direla-eta berariaz onetsitako kredituetatik datozenak barne.

**1. artikulua.** Kreditu-gehigarria ematea.

Kreditu-gehigarri bat ematen da, 1.800.000 eurokoa, 2019ko ekitaldirako, honela banatuta:

- 1.500.000 euro, "Prestakuntza programetarako asistentzia. Sektoreko konferentzia" izeneko 950002-96200-2276-242102 aurrekontuko partidarako.

– 150.000 euro, “Prestakuntza ekintzetarako beka. Sektoreko konferentzia” izeneko 950002-96200-4809-242100 partidarako.

– 100.000 euro, “Cenifer programetarako asistentziak. Sektoreko konferentzia” izeneko 950002-96200-2279-242104 partidarako.

– 50.000 euro, “Prestakuntzarako ekintza osagarriak. Sektoreko konferentzia” izeneko 950002-96200-2276-242103 partidarako.

**2. artikulua.** Kreditu-gehigarriaren finantzaketa.

1.800.000 euroko kreditu-gehigarri honen finantzaketa partida honetan erabilgarri dagoen kredituaren kargura egingen da: 2019ko indarreko gastu aurrekontuko 950002-96200-4819-242200 partida, “Lantegi-eskolen programak eta programa espezifikokoak. Sektoreko konferentzia” izenekoak.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Legea, Iruñean Auzialdiko 10. Familia Epaitegi berria gaitzeko kreditu-gehigarria ematekoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko irailaren 19an egindako Osoko Bilkuran, Iruñean Auzialdiko 10. Familia Epaitegi berria gaitzeko kreditu-gehigarria emateko Foru Legea onetsi zuen

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2019ko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Foru Legea, Iruñean Auzialdiko 10. Familia Epaitegi berria gaitzeko kreditu-gehigarria ematekoa**

### **ATARIKOA**

Martxoan, Ministroen Kontseiluak onetsi zuen unitate judizial berriak, epaitegiak, sortzea Estatu-ko lurralde eremu guztian, eta Nafarroari egokitu zitzaion Auzialdiko 10. Epaitegi berria sortzea, familia aferetarako, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari egindako eskaerarekin bat etorritz.

Uztailaren 11ko Ministro Aginduaren bidez (uztailaren 16ko Estatu-ko Aldizkari Ofizialean argitaratua), epaitegiak indarrean sartzeko egutegia zehaztu zen, eta Nafarroako epaitegi berriarentzat azaroaren 30a ezarri zen datatzat.

Ikusi da Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren aurrekontuko diru kopuruak ez direla aski aurre egin ahal izateko Iruñean Auzialdiko 10. Familia Epaitegi berria gaitzeko egin beharreko obren finantzaketa premiei.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehenengo paragrafoak ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta kreditua ez bada aski, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, kreditu-gehigarri bat ematekoa. Era berean, bigarren paragrafoan xedatzen du kreditu-gehigarria edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuekin finantzatzeko ahal dela, Parlamentuak zuzenketen ondorioz edo foru lege honen xedapenak direla-eta berariaz onetsitako kredituetatik datozenak barne.

**1. artikulua.** Kreditu-gehigarria ematea.

Kreditu-gehigarri bat ematen da, 110.000 eurokoa, aurre egin ahal izateko Iruñean Auzialdiko 10. Familia Epaitegi berria gaitzeko egin beharreko obren finantzaketa premiei.

Gehigarri hori aurrekontuko partida hauetan aplikatuko da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
030001 03000 6020 112100 Eraikin judizialak	48.000,00
030001 03000 6031 112100 Instalazioak eraikin judizialetan	30.000,00
030001 03000 6050 112100 Bulegoko altzariak eta ekipamenduak	16.000,00
030001 03000 6060 112100 Informazio prozesuetarako ekipamenduak	16.000,00

**2. artikulua.** Kreditu-gehigarriaren finantzaketa.

Kreditu-gehigarri hau aurrekontuko partida honen kargura finantzatuko da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
010001 01000 4609 921100 (E) Toki entitateentzako dirulaguntzak irisgarritasun planak egiteko	110.000,00

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat igor dezan, zeinaren bidez kreditu berezi bat emanen baita 19/2018 Foru Legeak aurreikusten dituen inbertsio finantzarioki jasagarriak egiteko.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko irailaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat igor dezan, zeinaren bidez kreditu berezi bat emanen baita 19/2018 Foru Legeak aurreikusten dituen inbertsio finantzarioki jasagarriak egiteko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Legebiltzar honi foru lege proiektu bat igor diezaion hilabeteko epean, zeinaren bidez 25.000.000 euroko kreditu berezia emanen baita 2019ko gastu-aurrekontuan, urriaren 10eko 19/2018 Foru Legean aurreikusi bai baina oraindik exekutatu ez diren inbertsio finantzarioki jasagarriak egiteko.

2. Kreditu berezi hori finantzatua izan dadin gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren partidaren kargura, non jasoko den 2018ko ekitaldiko superabitaren zenbatekoa”.

Iruñean, 2019ko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Europar Batasuneko Justizia Auzitegira jo dezan HMEIaren erreferentzia duten hipotekak direla-eta emanen duen epaia eskuratzeko eta neurri egokiak har ditzan ukituei aholkua emate aldera.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko irailaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Europar Batasuneko Justizia Auzitegira jo dezan HMEIaren erreferentzia duten hipotekak direla-eta emanen duen epaia eskuratzeko eta neurri egokiak har ditzan ukituei aholkua emate aldera".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1.- Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko abokatu nagusiaren konklusioa jakitera eman

ondotik auzi-kopuruak gora eginen duela aurreikusi denez, HMEIaren erreferentzia eduki eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ematen duen epaiaren menpe dauden hipoteken jarraipena egin dezan.

2.- Behar diren baliabideak jar eta erabil ditzan Nafarroako gizartearen informazio- eta aholku-beharrei erantzuteko, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren balizko epai bati begira, epai horrek egiazta baitezake jokaera oker bat egon dela, hau da, gardentasunik ez dela egon hipoteken kontratazioan".

Iruñean, 2019ko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege bat taxutu dezan desgaitasuna duten pertsonen babesa eta beharrezkoak dituzten laguntzen sistema bermatzeko.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko irailaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege bat taxutu dezan desgaitasuna duten pertsonen babesa eta beharrezkoak dituzten laguntzen sistema bermatzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Foru lege bat taxutu dezan desgaitasuna izan eta erabakiak hartzeko autonomia pertsonala mugatua duten pertsonentzako babesa eta laguntzen sistema bermatzeko, eta familiaren edo legezko ordezkariaren bitartez beren lehentasu-

nak adierazi ahal ditzaten arreta integralari, aukera-berdintasunari eta erkidegoko ingurunean parte-hartze aktiboa izateari buruz, familiaren laguntzak huts egiten dienean.

2. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideak arautzeko foru lege bat igor dezan, eztabaidatu eta bozka dadin, haren bitartez araudia desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioaren edukari egokitzeko eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideak direla-eta hartan aitortutako eskubideak jaso eta haietan aurrera egiteko.

3. Desgaitasunaren 2019-2022 aldirako Plan Estrategikoan 2019rako diseinatutako jarduketa zehatzak abian jar ditzan, eta ahal den bezain las-ter, haien ezarpenari buruz informa dezan".

Iruñean, 2019ko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da errege-erreginak eta Vianako eta Asturiasko printzesa gonbida ditzan antolatzen dituen protokolozko ekitaldietara eta, bereziki, Vianako Printzea saria emateko ekitaldira.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko irailaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da errege-erreginak eta Vianako eta Asturiasko printzesa gonbida ditzan antolatzen dituen protokolozko ekitaldietara eta, bereziki, Vianako Printzea saria emateko ekitaldira".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak:

1. Nafarroako Gobernua premiatzen du errege-erreginak eta Vianako eta Asturiasko printzesa gonbida ditzan antolatzen dituen protokolozko ekitaldietara eta, bereziki, Vianako Printzea saria emateko ekitaldira.

2. Konstituzio-araubidearekiko eta hartatik datozen erakundeekiko atxikipena, errespetua eta leialtasuna adierazten ditu".

Iruñean, 2019ko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala geldi dezan Nafarroako Gobernuako departamentuetarako eta haren erakunde publikoetarako hizkuntza planen onespena, azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren 6. artikulua aplikazioaren arabera.**

*OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko irailaren 19an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi egin du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala geldi dezan Nafarroako Gobernuako departamentuetarako eta haren erakunde publikoetarako hizkuntza planen onespena, azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren 6. artikulua aplika-

zioaren arabera. Mozioa José Javier Esparza Aburrea jaunak aurkeztu zuen eta 2019ko irailaren 6ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2019ko irailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Hizkuntzen Europako Egunarekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Hizkuntzen Europako Egunarekin, zeina heldu den irailaren 26an ospatuko baita eta, besteak beste, Europaren hizkuntza-aniztasunaren aberastasuna zaintzea eta indartzea bilatzen baitu.

2. Nafarroako Parlamentuak, Europar Batasunaren jarraibideekin bat, hizkuntza-aniztasuna eta eleaniztasuna sustatzearen aldeko apustua egiten du, eta babestu egiten du haren ikuskera, alegia, hizkuntzak ikastea aberaste pertsonal gisa eta XXI. mendeko Europako herritartasunaren oinarri gisa hartzen du.

3. Nafarroako Parlamentuak azpimarratu egin nahi du euskarak Europaren hizkuntza-aniztasunari egiten dion ekarpen berezia, eta euskarara babestu eta sustatzearen aldeko apustua egiten du, gizarte osoarentzako elementu onurgarria eta aberasgarria izan dadin, Nafarroako herritar guztien ondarea den aldetik.

4. Adierazpen instituzional hau Nafarroako Parlamentuaren hurrengo Osoko Bilkuraren hasieran irakurriko da, alegia, Hizkuntzen Europako Egunean” (10-19/DEC-00054).

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Emakumeen eta Neskatoen Sexu-esplotazioaren eta Trafikoaren Aurkako Nazioarteko Egunarekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Emakumeen eta Neskatoen Sexu-esplotazioaren eta Trafikoaren Aurkako Nazioarteko Egunarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak berresten du hartua duen konpromisoa, alegia, herritarrak kontzientziatzen jarraitzea beste mundu bat posible dela, XXI. menderako emakumeen esklabotasun hori gabeko mundu bat, hainbesteren isiltasun konplizerik gabea, mundu bat non bizikidetzeta eta

personeren arteko harremanak libreki eta berdintasunean gauzatuko baitira.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako hurrengo gobernuari eskatzen dio lege abolizionista integral bat onestearen alde lan egin dezan, emakumeak eta adingabeak prostituziorako tratatzearen aurkako borrokari konponbidea emateko; trata, prostituzioa eta pornografia orokorrean hartuko lituzkeena” (10-19/DEC-00055).

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten baitu Klima Larrialdiaren Adierazpena.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere egiten du Klima Larrialdiaren Adierazpena, honako printzipio hauei dagokienez:

a) Berotegi-efektuko gasak murrizten direla bermatzeko beharrezkoak diren konpromiso politikoak, arauak eta baliabideak lortzea, gehienez ere 2040a baino lehen –eta ahal izanez gero, 2035a baino lehen– zero balantze garbira iristeko, eta biodibertsitatearen galera geraraztea eta ekosistemak leheneratzea, hori baita natur sistema guztiak –gizakiena barne– kolapsatzea ekiditeko dagoen erantzun bakarra.

b) Erregai fosilak albo batera uzten direla sustatzea, urgentziaz leheneste aldera energia % 100 berriztagarriaren aldeko apustua. Hartara, gobernuek aztertu behar dute helburu hori nola lortu, eta beharrezkoak diren jarduketa planak proposatu behar dituzte; besteak beste: azpiegitura fosil berriak geldiaraztea; autokontsumo elektriko % 100 berriztagarria eta mugikortasun jasangarria lortzea lehenbailehen; oinezkoentzako espazioak sortzea; bizikleta eta kutsatzen ez duten bestelako garraiobideak sustatzea; energiaren eskaria kontsumo jasangarriak lortzeraino murriztea; efizientzia energetikoa eta instalazio berriztagarriak areagotzea sustatzea; hezkuntza-espazioak sortzea eta herritarrei emergentzia klimatikoari buruzko informazioa ematea; zero hondakineko politika lortzea; herrilurren kudeaketa babestea, lur emankorra berreskuratzea eta erosioa geldiaraztera bideratuta; akuiferoak leheneratzea, larreak leheneratzea lurraldearen kudeaketa inteligente bat eginez; despopulazio-arazoak dauzkaten eremuetarako laguntzak eta onura fiskalak ezartzea, klima-aldaketa motel-

tzeko eginkizun erabatekoa baitaukate, eta landa-ekologia nahiz giza birsorkuntzako proiektuak jorratzea.

c) Aurrerabidea egin beharra dago, besteak beste, tokiko eta gertuko ekonomiari dagokionez, elikagai-subiranotasuna, basogintza, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa eta gertuko bultzatzeko, lehenbailehen lortzearen hornikuntza agro-ekologiko erabatekoa sukaldaritzako zerbitzu publikoetan, eta populazioaren gainerako sektore-etara hedatzea.

d) Erakundeak krisi klimatikora egokitu beharri ekitea, ondorioak jada agerikoak baitira: tenperatura globalaren igoera, bero-boladak, prezipitazioen irregulartasuna, itsasoaren mailaren igoera, eta jada ikusten ari diren bestelako adierazpide batzuk.

e) Justizia, demokrazia eta gardentasuna izan behar dira aplikatzen diren neurri guztien oinarri nagusiak; hortaz, parte hartzeko moduak ezarri beharra dago herritarren erabakiak hartzerakoan, zaintza, jarraipen eta kontrolaren arloko eskumen eta guzti hartutako neurriei dagokienez. Horretarako, adierazle eta helburu egiaztagarriak eta neurgarriak ezarri beharko dira, eta beharrezkoa izanen da mekanismo horrek bereziki jasotzea bere baitan generoaren eta bestelako kolektibo ahulen ikuspegia.

2. Bat egitea eta babestea Klima Larrialdiaren aldeko Aliantzak 2019ko irailaren 27an eginen duen elkarretaratzearekin, eta ekintza klimatikoen astearen baitan horren aurreko astean egiten diren mobilizazioak eta jarduerak ahalbidetzea, lortze aldera Klima Larrialdi hori mundu mailan deklaratzeko” (10-19/DEC-00057).

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Gelazain nagusiaren burutza, merezimenduen lehiaketa bidez, betetzeko deialdia.**

**Izendapen-proposamena**

Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusiaren burutza gelazainen kidegoko funtzionarioen artean merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko 7.1 oinarrian xedatutakoaren arabera (48. NPAO, 2019ko apirilaren 19koa), iragarki-oholean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen da aurkeztu den izangai bakarrak lor-

tutako puntuazio osoa, eta, Legebiltzarreko Mahaiari igortzen zaio, lehiaketaren behin betiko emaitzaren ondorioz, Antonio Ansorena Urriza jaunaren aldeko izendapen-proposamena.

Iruñean, 2019ko irailaren 24an

Mahaikide-idazkaria: Silvia Doménech Alegre

Deiturak eta izena	Merezimenduak	Oroitidazkia	Txosten psikoteknikoa	Puntuazioa, guztira
Ansorena Urriza, Antonio	37.51	19	12.92	69.43

